



Bagarela

Izatek izaterako ahaleginean, tal-ka, norberak izan nahi duena eta agintzen dutenek norbera izatea nahi dutenaren arteko distantzian ere badago; esan nahi dena eta esanarazten dutenaren arteko distantzian, edo pentsamendu librea eta autoritatearen arteko harremanean.

Ez da gaurko kontua. Bagarela dakigunetik gabilta antzera. Agintzen duenak daki, beti, egia eta egia hori auzitan jartzen duen edonor, dialektika mailan bada ere, sobera dago agintarien sisteman.

Horrelaxe hil zuten 1601 garren urtean Giordano Bruno, idazlea, gure planetaren biribiltasuna eta teoria heliozentrismen alde (gaur egun inork zalantzan jartzen ez dituenak) iritzia emateagatik. Copernicoren teorien jarraitzailea zen Giordano Brunori, mingaina moztu zioten eta sutan erre zuten inkisiziokoek; garai berean eta arrazoi berdinengatik Galileo, filosofo, fisikaria konfinatu zutenek; ehun urte aurrerago, teoria haiek bide, Copernico astronomoaren aurkikuntzak ezetzatu zutenek; mila urte aurrera-

Eta gure planeta honetara etorrita, uste dut horiek badakitela planeta hau euskaraz Lurra deitzen dela eta ama dugula guk Lurra

go, biribiltasunak biribiltasun, Aristarco, matematikaria baztertu zutenek: ez zekitenek.

Eta horrelaxe, gaur egun ere, badi-relako, izan badirela aldarrikatzen duten herriak zigortu egiten dituzte, beste zerbait direla konbentzitu ezinka dabilzatenek: Jakin nahi ez dutenek.

Eta are gehiago: ezdeusetik izaterako urratsa esplikatu ezina bada ere, baden arren, jakina da batzuek izatek deuseztera kondenatu nahi izaten dituztela herriak eta haien ama-hizkuntzak. Egia ezetzatzen atrebitzen dira, jakin arren, jakin gura ez duten boteretsuek.

Horregatik nago, ez dakitenak, jakin nahi ez dutenak eta jakin arren harrokeriaz gobernatzen gaituztenak,

edo, beste modu batera esanda, Giordano Bruno hil zutenen sokatik agintzen dutenak, gogoratu beharrean direla, ezagutzen dugun unibertsoaren zibilborra eguzkia dela, gu denok berdin-berdin berotzen gaituena, baina batzuetan erotu arte itsutu gaitzekela, haren distiraz liluratu eta eguzkia norbera dela sinestu ezkeru.

Eta gure planeta honetara etorrita, uste dut horiek badakitela planeta hau euskaraz Lurra deitzen dela eta ama dugula guk Lurra.

Honez gero badakite agintzen gaituztenek Lurra borobildua dela eta be-rrau dela eguzkiaren inguruan biraka dabilena, Aristarco, Copernico, Galileo edo Bruno isilarazi aurretik eta ondoren ere.

edredones nórdicos
fundas nórdicas
mantas
sábanas
sobrecamas
mantelerías
albornoces
toallas
cojines

desde 1951 lencería hogar
Casa Cambra

Especialistas en fundas y edredones nórdicos

Tafalla 13 · Tel. 948 23 06 34
Iruñea-Pamplona